

UTULO, erreko handian

te Irutxulotik kuxkuxean”
na izango da larunbatean
kendo kultur etxean. Anjel
arikano, Jexux Mari Irazu,
eta Amets Arzallus bertso-
lira IRUTXULOren hamarga-
renaren ospatzeko.

kariak hamar
libilbide luze
Halakoetan,
oen gatz eta
Ohitura kon-
ean, la urtero
lizen baititu-
uneko kande-
baita bertso-
aren eraginez
solaritzaren
harrez geroz-
enen uharari
Zaletasuna
asun bihurtu-
se ugari pasa-
otan Bagerak
de egindako
Sebastian Li-
rastunak. Es-
ako neska ez
ren tamaina.
Bertsozale
Lee Chun Soo
a baino neke-
alla benetan.
rri, Txirritak,
dor eta enpa-
uzten nostal-
enak.

ez dugu ber-
o lirama, bai
Bagerak Anjel
to, Jexux Mari
in eta Amets
in iriak bildu

norakoak biluztea ez da kome-
ni izaten. Baina kuxkuxero sa-
marrak garenez, mingainetik
tira egin diogu Josu Goikoe-
txea gai-jartzaileari. Eta, al-
tortu digunez, bi bikoteren
maitasun istorioa izango da
tramaren ardatza. Horrez
gain, Donostian azken hamar
urteotan gertatutako aldake-
tak zein gertaera esangura-
tsuak ere hizpide izango dituz-
te. Ondorioz, barre, negar eta
amets egiteko aukerarik ere
ez da faltako. “Hamari urte
Irutxulotik kuxkuxean” bertso
trama Groseko Okendo Kultur
etxean izango da larunbat hon-
etan, hilak 8, 19:00etan. Ez
ezazue hutsik egin. Damutuko
zaizue, bestela!




Donostia hiria, bertso herria

Bertsolaritza
izan da beti
gure hiriaren
sinfonia. Euskal hi-
riarena, behintzat.
'Moko'-ri galde ie-
zaiozue, bestela.
Hori eginez gero,
Mattin marrazkila-
riaren kume
marmartiak Loiola-
ko erromerian biho-
tza apurtu zitzaion
ahaide zahar baten
istorioa kontatuko
dizue. Dama gazte-
txoak loreak udan
ihintza bezala mai-
te zituen Bilintx
bertsolariaren bizi-
tzaren ipuin gazi-geza, alegia.
1876ko San Sebastian egunez
bonba batek larri zauritu zuen
Indalezio Bizkarrondo 'Bilintx'.
Hilabete batzuk geroago zendu
zen gizajoa. Bizi izan zen be-
zain triste. Heriotzari bertsorik
eskaini gabe. Bilintx erroman-
tikoak aukera izan balu, Xabier
Amurizaren bertso bat aukera-
tuko zukeen ziurrenik, hilartitz
modura:

“Hiltzea zein penagarri!
Nork ez du pentsatu sarri?
Baina mesedez lore tristerik
niri ez ekarri
Eman aurretik lurrari
hilkutxa zabalik jarri
azken bertsoa kanta dezadan
zuen negarrari”

Bilintx baino Balantx gehiago
izan da, ordea, Donostian. Al-
tza parteko sagardotegietan,
berezik. Inguruko bertsolaririk
onenak hurbildu ohi ziren gure-
ra sagardo onaren usainean.
Txirritak, jakina, ez zuen seku-
la hutsik egiten. Udarregi za-
harra ere gustura ibili ohi zen
Igeldoko jaietan:



“San Pedro egunian
Igeldoko pesta,
galai bana hartuta
joan ziran bi neska:
ardua eskaini ta
kalian iheska,
tragatuko lukete
zahagia trabeska”

Txirritak Altzako Gazteluene
baserrian pasatu zituen azken
urteak. Hil baino aste batzuk
lehenago, hernaniarrak azken
txapela bereganatu zuen Vic-
toria Eugenia antzokian. Be-
harbada, Donostian inoiz
kantatutako bertsorik onena
bota zuen Txirritak egun har-
tan:

“Zenbat errezo egin izan det
nere denboran elizan,
ta pozik nago ikusirikan
pakian nola gabiltzan;
ni naizen bezin kobarderikan
inor ezin leike izan:
semeak gerrâ ez joategatik
mutilzahar gelditu nintzan”

Bistan denez, Donostia zaha-
rrean Belle Epoque hutsala zen
azala. Herria, berriz, bihotza.
Ez hiltzea neski herriaren